

HIPOTEKA ZORRA BERREGITURATZEKO ESKAERA.

PARTE-HARTZAILE GUZTIEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1. Errenten ziurtagiria eta, hala badagokio, ondarearen gaineko zergaren aurkezpenari buruzko ziurtagiria, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo autonomia-erkidegoko organo eskudunak emana, azken zerga-ekitaldiari dagokiona.
2. Jasotako azken hiru nominak. (Autonomoen kasuan: BEZaren hiruhilekoko likidazioak eta likidazioen urteko laburpena).
3. Prestazioak kudeatzen dituen erakundeak emandako ziurtagiria, Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako langabezia-prestazio edo -subsidioren kontzeptupean hilerro jasotako zenbatekoa jasotzen duena, eta etxebizitzan bizi diren familia-unitateko kideen langabezia-egoeraren egiaztagiria.
4. Autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek emandako gizarte-soldaten, gizarteratzeko gutxieneko errenten edo antzeko gizarte-laguntzen egiaztagiria.
5. Norberaren kontura lan egiten dutenen kasuan, jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzen ari bada, organo kudeatzaileak emandako ziurtagiria, jasotako hileko zenbatekoa jasotzen duena.
6. Familia-liburua edo izatezko bikotearen inskripzioa egiaztatzen duen agiria.
7. Etxebizitzan erroldatutako pertsoneri buruzko erroldatze-ziurtagiria, egiaztagiria aurkezteko unekoa eta aurreko sei hilabeteetakoa.
8. Desgaitasunaren, mendetasunaren edo lan-jarduera bat egiteko ezintasun iraunkorraren aitortpena.
9. Jabetza Erregistroak familia-unitateko kide bakoitzari buruz emandako titulartasun-ziurtagiriak.
10. Etxebizitzaren salerosketa-eskiriturak eta hipoteka-bermearen eraketa-eskiriturak, eta, halakorik balego, eraturako gainerako berme erreal edo pertsonalak justifikatzeko beste agiri batzuk.
11. Zordunaren edo zordunen erantzukizunpeko adierazpena, bazterkeria-mugan daudela jotzeko eskatzen diren baldintzak betetzeari buruzkoa. (Eskabide-dokumentuan).